

HUHEZIk Joxan Alustiza izendatu du lehendakari eta berritu egin du Errektore Kontseilua

2007/03/30

HUHEZIk **Joxan Alustiza** izendatu berri du bertako lehendakari **Txema Gisasolaren orde**z. Joxan Alustiza **Ezki-Itsason** jaio zen **1965ean** eta gaur egun Zumarragan bizi da. **Ingeniaritza tekniko**a ikasi zuen **Mondragon Unibertsitatean**. 1991 ezkerro Proiektu Elektronikoen arduraduna da Fagor Arrasaten 1999a ezkerro, berriz, Fagor Arrasateko Kontseilu Errektoreko lehendakaria da, Fagorreko Kontseilu Nagusiko kide eta MCCko Batzorde Iraunkorreko kidea.

Errektore Kontseilua

Lehendakaria izendatzearekin batera, HUHEZIk berritu egin du bertako Errektore Kontseilua. Hauek dira orain kide berriak:

- **Pili Sagasta**: langileen ordezkaria, lan bazkidea
- **Ane Urizar**: langileen ordezkaria, lan bazkidea
- **Jokin Leniz**: IKO 2. mailako ikaslea. Ikasleen ordezkaria, bazkide erabiltzailea
- **Maddi Elorza**: IKO 1. mailako ikaslea. Ikasleen ordezkaria, bazkide erabiltzailea.
- **Amaia Etxeberria**: AH 2. mailako ikaslea. Ikasleen ordezkaria, bazkide erabiltzailea.
- **Joxan Alustiza**: Fagorreko ordezkaria, MCCko Batzorde Iraunkorreko kidea, bazkide laguntzailea.
- **Belen Kortabarria**: MCCko ordezkaria, bazkide laguntzailea.

